


Aniztasuna da euskal landareleriaren ezaugarria

Dauden espezieetatik
%10 kanpotik
ekarritakoak dira

AURTEN ARABAKO Natur Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkartek egindako landareleriaren gidaliburuak —*Flora del País Vasco y territorios limítrofes*— 3.500 espezie desberdin jaso ditu Euskal Herrian (Europar espezie gehien dituen herrialdeetako bat da). Datuak garrantzi handiago du kontuan hartuta gure herriak 20.600 kilometro koadro eskas dituela. Iñaki Gerenabarrena Jaurilaritzako Nekazaritza sailburuaren hitzetan —foru aldundiekin batera lana finantzatu du—,

«gure herrian ezagutzen ditugun landare-espezie ezberdin hauek hurbileko herrialde handiago batzuetan —adibidez Alemania, Ingalaterra edo Herbeheretan— aurki ditzakegunak baino askoz ere gehiago dira».

Aberastasun hori ulertzeko, gure lurraldeek dituzten kontraste handiak izan behar ditugu kontuan. Kontrasteak hiru faktoreren eraginez sortzen dira: klima orokorra; tokian tokiko klima, erliebearen arabera moldatuta; eta sustratoak edo lurrak. Horiek direla eta, hain kilometro gutxi-



tan, egileek zortzi zonalde mota desberdin bereizi behar izan dituzte.

Beste garai batzuetako aztarnak

Liburua adituentzat eta zaleentzat egina baldin badago ere, guztion interesekoak izan daitezkeen bitxikeriak azaltzen ditu; horien artean dugu beste klimetako testigu izan diren antzinako landareen agerpena.

Aberastasun hori
ulertzeko, gure lurraldeek
dituzten kontraste
handiak izan behar
ditugu kontuan.
Kontrasteak hiru faktoreren
eraginez sortzen dira:
klima orokorra; tokian
tokiko klima, erliebearen
arabera moldatuta; eta
sustratoak edo lurrak

Euskal Herria ikerketa esparru

Gaur aipatzen dugun gidaliburu honek erakusten digun perspektiba, zoritxarrez, ez da orokorra. Normalean, gure herriko egoera naturalistiko ezagutzeko gutxienez hiru liburu desberdin kontsultatu behar dira, Euskal Herria zatikatzen duten hiru administrazioenak hain zuzen. Horregatik klabe honen agerpena albiste on bat da guretzat, zeren, nahiz eta eufemismo batekin disimulatuta egon —«inguruetako lurraldeetakoak»—, zazpi lurraldeetako informazioa biltzen baita, eta baita Errioxa eta Kantabriako zonalde batzuetakoak ere. Kritika bat egin diezaiogegu, eta ez da txikia: gaztelania hutsez dago egina. Seguraski dena batera ezin da. Ikusiko dugu hurrengoan. Eta bukatzeko, beste aipamen bat: liburuak, lagungarri gisa, marrazki sorta ederra dakar.



Lurraren historian aldaketa klimatiko ugari gertatu dira eta, horien ondorioz, Europar gaur egun dugun landaredia nahiko berria bide da: Koaternarioaren glaziazioek espezie askoren desagertzea ekarri bazuten ere, ondorengo eguraldi beroagoek landare horien zabaltze berriari uzten zioten bidea. Aldaketa horien zenbait testigu bitxi gelditu zaigu.

Horrela, haran atlantikoetan normalean Mediterraneo aldean agertzen diren artadiak eta landareak aurkitzea harrigarria da, esaterako txaparroa —*Quercus coccifera*— edo basa-olibondoa —*Olea europaea subsp. Oleaster*—. Beste landare batzuk klima subtropikalen erlikiak dira, esaterako, erramua —*Laurus nobilis*— edo *Culcita macrocarpa* motako garoa. Klima hotzen aztarnak ere gelditu dira erdi aldeko mendietan; horietan berez goi mendietakoak diren zenbait espezie aurki daitezke: *Diphasium alpinum*, *Epilobium angustifolium*, *Geranium cinereum*...

Azpimarratzekoa da ere, azkenik, datu bat nahiko kezagarria. Klabe honen egileek duten informazioaren arabera gure, inguruan ikus ditzakegun hamar landareetatik bat exotikoa da, hau da, kanpotik ekarritakoa eta hemen naturalizatu. Batzuk aipatzeagatik, hor ditugu *Baccaris* L.: Ipar Amerikatik ekarritakoa da, eta maizenez kostaldeko hezeguneetan aurkitzen da; sasiarkazia —*Robinia pseudoacacia* L.—: hau ere Ipar Amerikatik ekarria da, eta nonahi aurki liteke; Panpalezka (*Cortaderia Stapf*), zeina etxe askotan apaingarri moduan jartzen baita... Egileen iritziz, portzentaia altua izanik ere, ez da hainbestekoa Europakoekin konparatuz. Dena dela, kezagarria.

• Joxerra Zabala •

Jakingarria

Araba: urtegi gehiago?

Eguzki elkarteak Araban bi urtegi berri egiteko proiektuak salatu ditu. Urtegiak Zubialde eta Ega ibaietan egingo lirateke, bat Gorbeia Parkearen ondoan eta bestea Birgala herriaren inguruan. Ekologisten ustez, Arabako Foru Aldundiko proiektu horiek justifikaezinak dira, hainbesteko ur beharrik ez dagoelako. Asmo horien atzean, Eguzkiren ikuspuntutik, Arabako Lautadara ehun mila pertsona erakartzeko burugabeko prebisio espekulatiboa ezkututzen da.

Deialdia

Bizikleta eguna

Bihar, azaroaren 1a, Biziz-Bizi hiri txirrindularien elkarteak Bilbon zeharreko ibilaldia antolatu du. Irteera Arriagatik izango da, eguerdian, eta Plaza zirkularrean bukatuko da 13:30etan. Horren bidez, eguneroko garraioa beharretarako txirrindulari egokia dela errebindikatu nahi dute txirrindulariek, eta Bilborako bizikleta-karrilen sare bat eskatu.

Argitalpena



Bilbo, nora zoaz?

Hilabete batzuk baditu liburu honek, baina orain gutxi arte ez zaigu eskuetara ailegatu. Hemezortzi ekologista eta arlo desberdinetako espezialista bildu ziren izenburuko galderari erantzuteko, nolabait Bilbo berri bat imajinatzeko. Ondorioz, liburu interesgarri hau sortu zen. Interesgarria. Eskatzeko: 94-4790119 telefonoan.

berde bizi

3332. POSTA KUTXA
20080-DONOSTIA

► Zabalagir@bezeroak.euskaltel.es